

Juan Ignacio Arrieta gotzain berria

Bere anaiak, Jose Ramonek,
zuzenean kontatzen dizkigu
egun hauetako bizipenak

2008 Eka 5

**Nola heldu da Juan Ignacio Gotzain
izendatua izatera?**

Jainkoaren bideak ulertezinak dira
eta batzuetan ustegabeko bidexkak
erabiltzera daramate.

Jainkoari esker, gure familiak kristau
sustraiak ditu eta Jainkoaren

aurrean beti bizitzen erakutsi digute gurasoek. Juan Ignaciok eta nik Corazonistetan egin genituen ikasketak, eta han etxean ikasitako kristau hastapen haiek lantzen jakin zuten.

Gero, nik bezala, Juan Ignaciok Opus Deiren karisma eta mezua aurkitu zuen, eguneroko bizitza eta lana – orduan ikasleak ginen– santutasun bide bihurtzen, lagun sail bati esker.

Batxilergo eta unibertsitateko urte haietan, Juan Ignazioren asmoen artean ez zegoen apaiz izatea, eta are gutxiago gotzain bihurtzea. Beste edozein mutil bezalakoa zen, bere lagunartekoen adiskide bero, eta orain ere hala mantentzen da.

Iruñan Zuzenbidea amaitzean Erromara abiatu zen eta han apaiztu. Gero Nafarroako Zuzenbide Kanonikoko Fakultatean irakasle izan zen, eta handik Erromara joan zen berriro, orain dela 24 urte, gaur

egungo Gurutze Santuko
Unibertsitate Pontifikala hastera.

Orain bost urte, Veneziara aldiro
joaten hasi zen, non irakasgai bereko
Fakultatea hasi zuen. Eta handik Aita
Santuak Vatikanon bere esku utzi
zituen lanetan hasi zen.

**Bi anaiak kanpoan bizi zareten
arren, maiz etortzen zarete
Birgarara**

Bai. Jainkoari esker, badugu benetan
jatorra den ahizpa, eta hari esker –
Juan Ignaciok Aita Santuari esan zion
bezala berarekin izandako
entzunaldian– bi anaia apaizek
Elizak gure esku utzi dizkigun
eginbeharrak bete ahal izan ditugu.
Berak ikaragarri ondo zaintzen ditu
gurasoak, eta bai Juan Ignacio eta bai
ni ahal dugun guztia laguntzen
saiatzen gara, laguntza hau gure
eginkizun pasturalekin bateragarri
eginez.

Birgaran izan ditugun egonaldiak gurasoei laguntzeko eta Arraia-Maestu udaleko herrixketan laguntzeko aukera izan dira, apaiz gutxi baitago Arabako Mendialde osoari kasu egiteko.

Egun hauei buruz zerbait esan diezagukezu?

Gotzaingintzak poz handia sortu du gure familian, Aita Santuak “familia eder eta handia” –gurasoak, anai-arrebak, osaba-izebak, lehengusuak etab. – deitu zuen honetan. Nire amak hamaika senide ditu eta Aitak hamar. Guztira berrehun bat gara, eta Jainkoari esker, nire gurasoak –91 urtekoak– oso ongi lagunduta egon dira bidaia honetan. Benetan pozgarria izan da, lau belaunaldietako kidek parte hartu baitute: “senior” batzuk laurogei eta piko gaztek lagunduta.

Gotzaingintzaren elizkizuna bereziki hunkigarria izan zen: sagaratutakoen

artean, bat afrikarra zen, eta gotzain
berriek bedeinkapena ematean,
txaloez gain, afrikarren ohiko ulua,
gure irrintziarekin nahasturik
entzun zen.

Maiatzaren 2an beste arrazoi bat
izan genuen pozteko: Aita Santuak
harrera egin zigun. Ez dugu, ez, ziur
nago, gure bizitzan inoiz ahaztuko
une hau. Aita Santuak
bakoitzarentzat izan zituen
maitasunezko hitzak eta haren
bihozberatasuna eta xalotasuna
benetan deigarri gertatu zitzaigun.

Orain familia eta adiskide
guztientzat Meza bat prestatzen ari
gara Gasteizen, San Migel elizan,
gure Andra Maria Zuri maitearen
ondoan. Betidanik lotuta gaude eliza
horri, han bataiatuak baikara eta
han ospatu baikenituen gure Meza
nagusiak apaiztu ondoren.

pdf | document generated
automatically from [https://
dev.opusdei.org/eu-es/article/juan-
ignacio-arrieta-gotzain-berria/](https://dev.opusdei.org/eu-es/article/juan-ignacio-arrieta-gotzain-berria/) (2025
Abu 13)